

# Kolore askotako arroza

## 1- Arroz beltza

Gustatzen al zaizu arroza? Nola? ba al duzu errezetaren bat? Norena da?

Entzun Zalakain sukaldariaren errezeta, ulertzen ahalegindu eta, ondoren, bete hutsuneak. Okerrik egiten baduzu, entzun berriro errezeta hori.

OHARRA: Ez dira berdin-berdinak testu idatzia eta sukaldariak ahoz esaten duena. Beraz, lehenbizi, entzun eta ulertu eta, gero, saiatu hutsuneak egoki betetzen.



Txipiroi begi handien

Tinta

Ura

Oliotan

Eragin

Zartagin

Egosten

Txipiroi gustua

Asko

Arrain salda

Kazolan

Ale bat

Arroza

Eragin

poltsetan

Gaur \_\_\_\_\_ prestatuko dugu. Orain \_\_\_\_\_ denboraldia hasi denez, arroz beltza prestatuko dugu. Horretarako, hasteko, arroza egin behar dugun \_\_\_\_\_ edo \_\_\_\_\_ bertan jarriko dugu \_\_\_\_\_ tipula pixka bat, baratxuri \_\_\_\_\_ eta piper berde pixka bat, txiki-txiki eginda.

Aurretik txipiroia garbitu eta zatitu egingo dugu eta \_\_\_\_\_ alde batean utziko dugu; hori oso garrantzitsua da. Behin kazola horretan baratxuria, tipula eta piper berdea pixka bat \_\_\_\_\_ dugunean oliotan, bertara botako ditugu txipiroi-zatiak eta ondo nahasiko dugu dena. Arroza ere bertara botako dugu eta ondo nahasiko dugu, arrozak \_\_\_\_\_ har dezan.

Komeni da \_\_\_\_\_ egina izatea, arroza bustitzeko; dena den, salda bota aurretik txipiroiaren tinta botako diogu nahasketari. Txipiroi begihandiek tinta \_\_\_\_\_ izaten dute, baina ikusten baldin badugu ez dela nahikoa, \_\_\_\_\_ ere saltzen dituzte txipiroi tinta horiek, eta horrelako bat erabil dezakegu. Barazkiak, txipiroia, arroza eta tinta nahasketari ondo \_\_\_\_\_ diogunean, \_\_\_\_\_ edo arrain-salda botako dugu bertara eta \_\_\_\_\_ utziko dugu.

Ezagutzen al zenuen arroza prestatzeko errezeta hau? Eta zuk, nola prestatzen duzu arroza?

Seguraski zenbat ikasle hainbat modu ezberdin izango dira arroza kuzinatzeko. Mundu osoan ere, arroza komuneko elikagaia izan arren, hamaika modu ezberdinetan prestatzen da. Ezagutzen duzu baten bat?

## 2- Munduko arrozak



Mundu osoan jaten den janaria da arroza, unibertsala beraz. Jaki horren prestaketa da lurralde eta kulturak desberdintzen dituen. Hemengoak eta kanpotik etorritakoak elkartzeko asmoz, arroza erabiltzen da Munduko Arrozak izeneko festan, sinbologia handia duelako.

Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala auzoetako taldeen koordinakundeak antolatzen dute urteroko topaketa gastronomiko hori, eta aurtengoa 16. edizioa izan da. Auzoko kulturak eta aniztasuna plazaratzeko hainbat ekimen egitearekin batera, auzoek jasaten duten giza-bazterketa ere salatzen dugu. 16.edizioan, arrozaren inguruan 121 talde eta 3.500 pertsona elkartu dira.

Munduko Arrozak ekimeneko antolakuntza taldetik Marta eta Igel hurbildu zaizkigu, jaiaren nondik norakoak ekartzera. Festa izateaz gain, aldarrikapenerako eguna ere bada Munduko Arrozak, baztertuta eta ahaztuta egon den auzo eta komunitate zabal eta plural baten aldarrikapen eguna.

Entzun elkarrizketa eta erabaki ondorengo esaldiak EGIA ala GEZURRA ote diren:

	EGIA	GEZURRA
Antolatzaileetako batek dio oraindik ez dutela lortu auzoko jendearentzako topagune bat.		
Antolatzailearen esanetan arroza aniztasunaren ikur bihurtu dute.		
Haren ustez, arrozak osagai guztiak onartzen dituen bezala, auzoak ere kanpotik etorritako bizilagun berri guztiak onartu behar ditu.		
Komunikabideek eta erakundeek auzoaren irudi txarra ematen dute eta horrek eragina izan du aurtengo edizioan.		
Auzoan jatorri ezberdinetako jendea bizi den arren, prest daude elkarrekin lan egiteko elkarbizitza sustatzeko.		
Antolatzaileetako batek ukatzen du auzo horietan prekaritatea eta pobrezia dagoenik, aurre egin diotelako.		



### 3- Getxoko arrozgilea

Erantzunak kontuan izanda, kokatu hutsuneetan elkarriketaren galderak.

Hiruka. 2019-09-11 (IKAn moldatua)

## Getxoko Munduko Arrozak: "Arrozak denok batzen gaitu, integrazioarako elementua da"



Aurten ere, Getxoko hainbat eragilek Munduko Arrozak kulturartekotasun-jaiak prestatu dute igande honetarako, irailaren 15erako. Kalea hartu, batzen gaituena ospatu eta elkarrekin aritu, horiek dira, besteak beste, ekimen horren helburuak. Parte hartzaileetako batekin hitz egin dugu horren inguruan sakontzeko.

Duela 20 urte inguru Bilboko San Frantzisko auzoan hasitako herri-ekimen bat da. Horren helburua da kulturartekotasuna aldarrikatzea, kaleak berreskuratzea eta egun batez kultura ezberdinak denon artean konpartitzea; kasu honetan, arrozaren inguruan.

Arroza munduko leku denetan dagoen elikagaia da; herrialde denek kozinatzen dute, askotariko modutara, eta arroza oinarrizko elementua da kulturen arteko esperientziak konpartitzeko.

Egia esanda, ez dago arrazoi berezirik egiteko. Duela hiru urte, Ongi Etorri Errefuxiatuak taldekoek pertsona migratzaileei harrera duina egitea beharrezkoa zela aldarrikatzen zuten, eta iruditu zitzaientzela mota honetako ekimenak egitea onuragarria izan zitekeela. Aitzakia bat da askotariko jendea leku berdin batean batzeko eta kulturartekotasun hori sustatzeko. Jai bat da, bai, baina ez da Getxon egiten diren paellen modukoa. Horrek ere bere alde positiboa du, baina Munduko Arrozaren jaiak mundu osoko pertsonak elkartu nahi ditu, erakusteko den-denek bere lekua dutela hemen.

Duela 19 urte etorri nintzen Getxora, eta beti beso-zabalik hartu naute. Getxoko Udalak, gainera, immigrazio-teknikaria du, eta hori oso gutxitan ikusten da udal batean. Harrera oso ona izan dugu hemen, eta laguntza jaso dugu beti integrazioan laguntzeko.

Integratzea kostatzen da; hala ere, kirola tarteko beti aukera ona da erlazioak sustatzeko, horren erakusgarri dugu Adrebol futbol-taldea. Nik beti esaten diet ingurukoei integratzea beharrezkoa dela, eta horretarako aukera paregabea eskaintzen du kirolak, dantzak eta kulturak. Bestalde, oraindino "joan zaitezte zuen herrialdetara" bezalakoak entzun behar izaten ditugu, baina orokorrean oso pozik gaude hemen.

Esango nuke baietz. Aurrerapausoak eman dira, baina lan egin behar da oraindik. Batzuetan egoera desatseginak ematen dira, eta badago lana lapurtzera gatozela pentsatzen duen jendea; eta hori ez da horrela. Pertsona migratzaileen eskulanagatik izango ez balitz guraso askok ezin izango lukete lan egin, seme-alabak zaindu beharko lituzketelako; era berean, adineko asko zaharren egoitzetan egongo lirateke. Azken horien kasuan, migratzaileen eskulanari esker euren etxeetan daude. Ni, adibidez, etxe batean daramatzat 8 urte lanean, eta hiru seme-alaba zaindu ditut, eta oraindik jarraitzen dut.

Neurri handi batean tituluak baliokidetzea. Bolivian, nire jaioterrian, oso zaila da, eta modu pertsonalean egin behar da. Gainera, burokrazia ezinezkoa izaten da. Ondorioz, bertan jasotako formakuntzari lotutako lan bat hartzeko beharrezkoak ditugun paperak izatea asko kostatzen zaigu.

Beldurra ken dezala eta anima daitezela, bakarrik edo lagun-arteon guk zabaldu gura ditugun balioak konpartitzeko. Azken finean horixe da bilatzen ari garena: ahalik eta herriko jende gehien batzea elkarbizitza irudikatu ahal izateko.

- 1- Zer dela eta erabaki zen mota horretako ekimen bat Getxon egitea?
- 2- Eta migratzaileek zer-zelako harremana dute euren artean?
- 3- Zer esango zenieke jendeari igande honetan Munduko Arrozak jaiari parte har dezan?
- 4- Kaleetan kulturartekotasuna ikustaraztea garrantzitsua da jakinarazteko kultura ezberdina dutenen arteko elkarbizitza egingarria eta posiblea dela erakusteko. Zer egoera bizi dute gaur egun Getxon dauden pertsona migratzaileak?
- 5- Zer da Munduko Arrozak?
- 6- Gizarte arrazista batean bizi garela esango zenukete?
- 7- Zergatik arrozak elkargune gisa?
- 8- Zeintzuk zailtasun izaten dituzue lana aurkitzeko?

- Eta zuk, parte hartuko al zenuke Munduko Arrozak ekimenean? Zer iruditzen zaizu ekimen hori?
- Parte hartzekotan, zer arroz mota prestatuko zenuke?
- Probatu al duzu inoiz beste herrialde bateko eran prestatutako arrozik? Eta beste herrialde bateko janari exotikorik? Zein?
- Ba al daukazu beste herrialde batetik etorritako lagunik, auzokiderik, seniderik, ezagunik? Probatu al duzu inoiz haiek kuzinatutako plater tradizionalik? Zein?
- Zein da inoiz hemen zein hemendik kanpo jandako gauzarik arraroena?

# ERANTZUNAK

## 1- Arroz beltza

Gaur (**arroza**) prestatuko dugu. Orain (**txipiroi begi handien**) denboraldia hasi denez, arroz beltza prestatuko dugu. Horretarako, hasteko, arroza egin behar dugun (**zartagin**) edo (**kazolan**) bertan jarriko dugu (**oliotan**) tipula pixka bat, baratxuri (**ale bat**) eta piper berde pixka bat, txiki-txiki eginda.

Aurretik txipiroia garbitu eta zatitu egingo dugu eta (**tinta**) alde batean utziko dugu; hori oso garrantzitsua da. Behin kazola horretan baratxuria, tipula eta piper berdea pixka bat (**eragin**) dugunean oliotan, bertara botako ditugu txipiroi-zatiak eta ondo nahasiko dugu dena. Arroza ere bertara botako dugu eta ondo nahasiko dugu, arrozak (**txipiroi gustua**) har dezan.

Komeni da (**arrain-salda**) egina izatea, arroza bustitzeko; dena den, salda bota aurretik txipiroiaren tinta botako diogu nahasketari. Txipiroi begihandiek tinta (**asko**) izaten dute, baina ikusten baldin badugu ez dela nahikoa, (**poltsetan**) ere saltzen dituzte txipiroi tinta horiek, eta horrelako bat erabil dezakegu. Barazkiak, txipiroia, arroza eta tinta nahasketari ondo (**eragin**) diogunean, (**ura**) edo arrain-salda botako dugu bertara eta (**egosten**) utziko dugu.

## 2- Munduko arrozak

	EGIA	GEZURRA
Antolatzaileetako batek dio oraindik ez dutela lortu auzoko jendearentzako topagune bat.		X
Antolatzailearen esanetan arroza aniztasunaren ikur bihurtu dute.	X	
Haren ustez, arrozak osagai guztiak onartzen dituen bezala, auzoak ere kanpotik etorritako bizilagun berri guztiak onartu behar ditu.	X	
Komunikabideek eta erakundeek auzoaren irudi txarra ematen dute eta horrek eragina izan du aurtengo edizioan.		X
Auzoan jatorri ezberdinetako jendea bizi den arren, prest daude elkarrekin lan egiteko elkarbizitza sustatzeko.	X	
Antolatzaileetako batek ukatzen du auzo horietan prekarietatea eta pobrezia dagoenik, aurre egin diotelako.		X

### 3- Getxoko arrozgilea

- 1- Zer da Munduko Arrozak?
- 2- Zergatik arroza elkargune gisa?
- 3- Zer dela eta erabaki zen mota horretako ekimen bat Getxon egitea?
- 4- Kaleetan kulturartekotasuna ikustaraztea garrantzitsua da jakinarazteko kultura ezberdina dutenen arteko elkarbizitza egingarria eta posiblea dela erakusteko. Zer egoera bizi dute gaur egun Getxon dauden pertsona migratzaileak?
- 5- Eta migratzaileek zer-zelako harremana dute euren artean?
- 6- Gizarte arrazista batean bizi garela esango zenukete?
- 7- Zeintzuk zailtasun izaten dituzue lana aurkitzeko?
- 8- Zer esango zenieke jendeari *igande* honetan Munduko Arrozak jaiari parte har dezan?